

# DURRELL

GUILLERMO ROA ZUBIA  
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

## biologoa eta idazlea

**B**i arrazoiengatik da Gerald Durrell ospetsua. Lehenik, zoologiko bat zabaldu zuelako desagertzeko arriskuan dauden espezieak jasotzeko, Jersey uharteko zoologikoa.

Bigarren arrazoia da nagusia: Durrell idazle trebea zen. Animaliekin egindako lana gaitzat hartuta, liburu-sorta ederra idatzi zuen. Liburu horietako edozein da ona kontserbazioari buruz irakurri nahi dutenentzat. Eta ez horientzat bakarrik, liburu askotan kontakizun autobiografikoak ere tartekatu baititu Durrellek.

Haren liburu ezagunena *My Family and Other Animals* da (gaztelaniazko argitalpenean, *Mi familia y otros animales*). Durrellen familiak Ingalaterra utzi zuen, eta bost urtez bizi izan zen Korfu uhartean, Grezian. Liburuak garai hartako oroitzapenak biltzen ditu, bederatzi urteko



Gerald Durrell umearen ikuspuntutik. Hasieran, Korfun animaliekin izan zuen harremanari buruzkoa izan behar zuen liburuak. Baina “liburuaren lehen orrietan familia sartu nuen, eta hori akats handia izan zen” idatzi zuen Durrellek. “Paperaren gainean egonik, hurrengo kapituluak bereganatzen hasi ziren, eta, gainera, lagunak gonbidatu zituzten. Zailtasun handiak gaindituta, eta trebetasuna erabilita, animalientzako bakarrik izango ziren orri batzuk gordezea lortu nuen”.

Durrellek liburu asko idatzi zituen zoologikoko lana aitzakia hartuta. Horietako bat da *Catch Me a Colobus* izenekoa (*Atrápame ese mono*). Zoologikoan bertan gertatutakoak kontatzen ditu, eta, horrekin batera, animalien bila egindako bidaia batzuetan gertatutakoak ere bai. Lehoinabarrak eta koloboak harrapatzeraz Sierra Leonara egindako bidaia bat deskribatzen du; Mexikon teporin untxiaren bila joan zireneko beste bat eta abar.

Durrellen zoologikoaren helburua arriskuan dauden espezieak kontserbatzea da. Hain zuzen ere, helburu horren atzean dagoen filosofia azaltzen da Durrellen idatzietan. Idazlea 1995ean hil zen, baina haren lana ez zen orduan amaitu, zoologikoarekin batera, Wildlife Preservation Trust International izeneko fundazioa sortu baitzuen, helburu berarekin. Hain zuzen ere, aurten egin ditu 50 urte fundazioak. ●

i

### Mi familia y otros animales

Gerald Durrell  
Alianza Editorial  
174x110 mm  
ISBN: 84-206-3335-6  
Jatorrizko izenburua:  
*My Family and Other Animals*

### Atrápame ese mono

Gerald Durrell  
Alianza Editorial  
180x110 mm  
ISBN: 84-206-1909-4  
Jatorrizko izenburua:  
*Catch Me a Colobus*